

Lakarra, J. A. (2013): "Antzineuskararen berreraiketa sakonagorantz: forma kanonikoa, kronologia, gramatikalizazioa"

Antzineuskararen berreraiketa estandarraz eta hori aldatu beharraz

Euskarak ahaide ezagunik ez zanik, bere historia egiteko biderik ohikoena (hitzkuntzen arteko erkaketa) antzu eta agor dugula aspalditik da ezagun. Hala ere, ez du ezinezko bilakatzen historiaz jardutea, baina bai eskatzen du gainerako hurbilketak ahalik eta gehien lantzea eta fintzea. Gainerako hurbilketa hauetarik edozein hizkuntzatan emankorrena lirudikeen barne-berreraiketa atzeratua izan da euskalaritzan, bai horretarako beharrezko zen filologia aurrelana ez delako garatu berandu arte eta baita barne-berreraiketak oinarri duen teoria linguistikoaren aitzinamendua oso mugatua izan delako gure artean.

Martinetek 1950ean plazaratu zuen latinaurreko euskal herskarieng inguruko artikulua berritzailea, zeina Mitxelenak haren oinarriak sendotu zituen, AEMren sistema fonologikoa proposatuz:

- Bortitzak: () T C 'C K N L R
- Ahulak: p t s 's k n l r h

Berreraiketa eredu hau izan da eta oraindik ere bera da, funtsean, modu estandarra azken 2000 edo 2500 urteetako euskararen bilakabidea eta AEren egitura deskribatzeko erabiltzen duguna. Urte hauetan ehunka etimologia berri eman ditu eta baita lehenagoko asko suntsitu edo hobetu ere, orain arte bere azalpen boterea agortu ez delarik. Hauen mailegaketa ikerketen berebiziko garrantzia agertu dute hizkuntzalaritza historikoarentzat, maileguen ikerketa hizkuntza hartzailearen historia argitzeko erabiliz. AEren ikerketa estandarrekiko hurbilketa, ohituraz, "barne berreraiketaz" garatu arren, berreraiketa hori mistotzat jo genezake.

Paradigma berriaren oinarriak

Forma kanonikoaz

Morfologikoki, etimologigintzan hainbat kontraesan edo polimorfismo ditugu Arbelaiz (1978) eta Mitxelenaren Obra Guztiak (2011) aztertzen ditugunean: monosilaboak, bisilaboak, polisilaboak... ia erabatekoa da morfemen askatasuna AEranzko jatorrizko formak proposatzerakoan, baita Uhlenbecken (1942) euskal hitz-sailen aurkezpenean. Forma kanonikoaren ikerketak aurrerapen handiak ekarri ditu IEren, semitikoaren, urailikoaren, etab. bilakabidearen ezagutzan eta, *mutats mutandis*, hori zen AErentzat Lakarra (1995)en proposatzen zen ikerbidea, baita AEZrako CVC erro monosilaboa ere, erro berriak lortuz (*han, *ger, *bur...), lehenik ezagututako erro zenbaiten familiak zabalduz (*bel: ubel, orbel, sabel, gibel...) eta mailegu berriak ezagutzera iritsiz (*sorbalda* < *soin-malda*; *hezur* < **enazur* < *(b)e(r)na-zur). Baita, gramatika zaharraren aztarnak antzeman ziren: erreduplikazioak (*odol, zezen, gogor, ahal, ohol*) eta aurrizkiak (*gi-, la-, sa-*)

Forma kanonikoaren azterketak eta Tipologia Holistiko Diakronikoaren erabilerak AEren berreraiketa sakonagoari eta euskararen historiaurrearen ezagutza aberatsagoari tradizio diakroniko asko eta oso ezberdinetan landu eta findutako hobekuntza-bide ugari eta oinarri

sendoak dakarzkie; hori erakutsi nahi izan du Lakarrak aurreko bi hamarkadetako hainbat lanetan.

Kronologia

Kronologia eta periodizazioari dagokio EBZren gaia ere: Mitxelenak 1981ean aldarrikatu zeun zuhurki eraikuntza horren premia eta ezin esan euskal dialektologia diakronikoan izandako berrikuntza larri horren ondorioak berreraiketan eta historiaurrearen ikerketan behar bezala ustiatu direnik dagoeneko. Lakarrak metodoari buruzko gogoeta soil batzuk ekarri nahi izan ditu:

- EBZ ez da linguistikoki behar bezala definitua eta bereizia AEMrekiko eta eszenario geogradiko eta historikoaren gaia historialarien eskutan utzi aurrerik hizkuntzalariek horret
- EBZren zatiketa ez zen gertatu, segurki, zortzi, sei edo hamabi adarretan, behin betiko adarkatze bakarraz. Adarkatze bikoitza da (nonahi berarekin dakartzan hainbat arazo ezagun eta korapilatsu gorabehera) familia garatu guztietan zatikatze mota ohiko eta emankorrena eta hori euskal dialektologia diakronikoan ezartzeak ikuspegi egiantz urrikoak ezabatu eta hurbilketa historiko-filologiko aberatsagoko bidean jarriko gintuzke.

Gramatikalizazioa

Gramatikalizazioa “morfemen lexiko izatetik gramatikal izatera edo gramatikala dena are gramatikalago bihurtzea” definitu zuen Kurylowiczek. Azken urteotan, gramatikalizazio fenomeno bakarra ala beste zenbait bilakabide lehendik ezagunen ondorio den eztabaidatu izan da: badirudi gehienak bigarren honen adeko direla. Halere, gramatikalizazioaren azterketa oso emankorra izan da hizkuntza aldaketa ulertzeko, eta horregatik euskalaritzan ere eman izan zaion baino arreta gehiago merezi duela deritzo Lakarrak.

Berreraiketaren egitekoen aldetik izan ditzakeen onurak plazaratzen ditu Lakarrak, forma kanonikoarekin eta tipologia holistikoarekin, fonologia, semantika, morfosintaxia eta are pragmatika ere biltzen baitira bere baitan. Hau ere, aurreko bi horiek bezala, “hizkuntzalaritza diakroniko konparatu ez-genetikoaren”ren alderdietarik dugu, berreraiketa mistoa darabilelarik: barne-berreraiketa, asmo genetikoarik gabe esuakraz landako kideekin arituz... berreraiketa konparatua teoria linguistiko unibertsala eskuan. Esan gabe doa, lekukotasun urri eta erlatiboki berankorrez hornitutako euskarari ezinbesteko zaizkiola gramatikalizazioa bezalako hurbilketa orokor emankorrak: oso egitura eta historia ezberdineko hizkuntzetan gramatiken egoera sinkronikoa eta bilakabide diakronikoa argitzeko gai izan delarik (are gurea baino lekukotasun berantiaragoko eta ia lekukotasun idatzirik gabeko hizkuntzetan), itzarrotekoa da gurean ere hura gabe ezin antzeman zitezkeen bilakabide fonologiko edo erlazio morfologiko eta semantikoak berreskuratzeko gai izatea.